


DIRU-SARRERAK



Gure diru sarrerak sortzaile digitalei eta jokalaria ezberdinei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak dira. Balio proposamenean aipatu ditugun hiru zerbitzu horiek izango dira gure diru sarrerak.

Horrez gain, diru laguntza batzuk jasoko ditugu tolosako garapen agentziari esker.



Diru laguntza hauek jasotzeko agentziara bertara joan gara beraiekin hitz egitera eta beraiei gure empresari buruzko informazioa eman diegu. Horrela zer diru laguntza dauden jakin dugu eta garapen agentziari esker urte osorako 6 mila euroko diru laguntza lortu dugu.

Diru sarrera hauek bi modutakoak izango dira eta gure bezeroarekin sinatutako akordioaren arabera aldatuko dira.

1. Orainketa bakarreko diru-sarrerak

Sortzaile digital edo jokalaria profesional baiti momentu jakin batean emandako zerbitzu batengatik lortutako diru-sarrerak dira. Emandako zerbitzuaren arabera, diru sarrera aldatu egingo da, hau da, zerbitzua geroz eta handiagoa izan zerbitzuagatik diru gehiago irabaziko dugu.

2. Ordainketa errepikakorak

Diru-sarrerra hauek sortzaile digital edo jokalaria batekin denbora tarte jakin bateko kontratu bat sinatzen dugunekoak izango dira. Denbora tarte ezberdintako kontratuak izan daitezke.

Lehen aipatu bezala gure diru-sarrera guk eskeintzen ditugun zerbitzuak dira.

Prezioei dagokionez, ordainketa errepikakorak direnean prezio finkoak izango dira. Bestalde, ordainketa bateko diru-sarrerak izatean prezioak dinamikoak izango dira eta eskeinitako zerbitzuaren eta horretarako behar izandako denboraren arabera prezioak aldatu egingo dira.

Jokalaria profesionalen sal-erosketetan, gure lana futbolisten manerrek egiten dutenaren berdina izango da. Aurten Europako LOL txapelketa nagusiaren ligan (LEC), 20 milioi euro inguru mugitu dira fitxaketa ezberdinetan. Diru horren kopuru

bat (%5-10 inguru), managerri dagokie eta gure diru iturri bat izango da. Diru sarrera hauek ordainketa bakarreko diru-sarrereri dagokie.

Diru sarreren tabala (estimazioa da: edukiko ditugun bezeroen arabera diru sarrerak handiagoak edo txikiagoak izango dira)

DIRU SARRERA	IRABAZIA	KOPURUA	GUZTIRA (€)
Ordainketa errepikakorrek	1500 (Hilabetero zerbitzu hau emateagatik kobratzen duguna)	3	4500
Ordainketa bakarreko diru-sarrerak	500	5	2500
Fitxaketen dirua	Fitxaketen bidez lortutako dirua.	Egindako fitxaketen arabera	10000-20000

Hasieran bazkide bakoitzak jarri beharko duen kapitalari dagokionez, gutxigorabeherako kalkulu bat egin ondoren, bakoitzak 2000€ jarri beharko ditu proiektua martxan jartzeko. Diru gehiena ordenagailuak erosi eta iragarkientzako izango da.

